

Valentin Legorburu Gabilondo
Antzuola, Gipuzkoa (1923-1996)

Aurkibidea

Biografia

Lizarraga auzoko Ugartetorre baserrian jaio zen 1923an. Bergarako Altos Hornosen ibili zen lanean. Elkarriketan bere emazte Ali Ibarguren (Bergara, 1925) ere azaltzen da.

Zintak

ANT-005

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu Larrañaga, Juan Jose
- **Data:** 1990-01-01
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-017

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Legorburu Ibarguren, Lierni

- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Legorburu Ibaguren, Lierni

Pasarteak

1. "Berriketia balitz gorua" kopla

- **Erref:** ANT-005/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Artilearen inguruko azalpenak: kardak, gorua egitekoa eta haria egiteko makina. Kopla bat esaten du: "Berriketia balitz gorua eta jarduna ardatza, nere andriak egingo littuke etxia bete mataza". Mataza zer den azaltzen du, kirruarekin egiten zena.

2. Trebera, gelaratza eta kobrezko galdara

- **Erref:** ANT-005/007
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Sukaldean erabiltzen ziren tresnen azalpenak ematen ditu: trebera, gelaratza eta kobrezko galdara. Esaera omen zen etxeko kontuak gelaratzak jakiten zituela.

3. "Medialina", etxe osoa ez erretzeko

- **Erref:** ANT-005/008
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:16:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Medialina eraikinaren Erdiko pareta zen, baserría suak hartuz gero, beste aldea erretzea galarazten zuena.

4. "Gure herrian kapain bat bazan" kanta

- **Erref:** ANT-017/005
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>"Gure herrian kapain bat bazan.." kanta.</p>

Transkripzioa

- Oin, hasi.

Gure herrian [kapain] bat bazan,
berak zekien soiñu ta dantzan.
Harek jornala hiru-lau kuarto
arratsaldian zurruterako
hura eranda sabela bero,
etxera junda demandan gero.

5. "Urteberri eguna ez da egun txarra.." kanta laburra

- **Erref:** ANT-017/011
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>"Urteberri eguna ez da egun txarra..." kanta laburra.</p>

Transkripzioa

Urteberri eguna ez da egun txarra, Kortara jausi dala gure zapai zaharra.

6. "Ama datorrenian, aita datorrenian..." kanta

- **Erref:** ANT-017/015
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>"Ama datorrenian, aita datorrenian..." kanta.</p>

Transkripzioa

Jeronimo, entzun zazu,
neskatxarekin ibiltzen zera zu.
Aita datorrenian, -nian
ama datorrenian, -nian

etxetik kanpora jua biharko dezu.
Aitta datorrenian, -nian
ama datorrenian, -nian
etxetik kanpora jua biharko dezu.

Legorburu Gabilondo, Valentin | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com